

Inprentaren historiaren beharra grafiaren historia berreraikitzeke: lehen hurbilpena¹

*The necessity of a history of printing houses to reconstruct the history
of spelling: An initial approach*

Koldo Ulibarri Orueta*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In order to carry out a general analysis of the Basque spelling, in this article we intend to highlight the relevance of taking into account the variable of the printing office. We first expound the importance of the topic (§ 1), while presenting a proposal to the study of spelling from the point of view of printing houses (§ 2): we want to propose an analysis of the texts published during the *Labourdin* classical literature period and, to this end, we will bring a list of the (known) editions of books from that time and area, specifying the printing office of each one (§ 3). Finally, we will expose the links between printing and spelling with examples: we will describe the graphic differences between the texts made from the workshops of *Millanges* and *de la Court*, both printers of Bordeaux (§ 4).

KEYWORDS: Basque spelling; printing offices; Old Classical Basque; Labourdin literature.

LABURPENA: *Euskal grafiaren azterketa orokor bat egiteko, inprenten aldagaia kontuan hartzearen garrantzia aldarrikatu nahi dugu artikulu honetan. Horretarako, horren justifikazioa egingo*

¹ Lan honek Ministeritzak finantzaturiko «Monumenta Linguae Vasconum. V. Periodización y cronología» [FFI2016-76032-P] eta «Monumenta Linguae Vasconum. VI. Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00), ikerketa taldearen laguntza izan du, «Lingüística Histórica e Historia de la Lengua Vasca» del Gobierno Vasco [GIC.IT1344-19] Talde Kontsolidatuak babesturik dagoena. Zorretan nago Blanca Urgellekin, gai honetan (eta beste askotan) egindako ohar eta iradokizunek asko hobetu baitute testu hau. Azkenik, eskerrak eman behar dizkiot Eneko Zuloagari, egindako oharrengatik eta testuaren azken orrazketan harturiko lanagatik. Nola ez, ager daitezkeen akatsak sinatzen duenari bakarrik egotzi ahal zaizkio.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Koldo Ulibarri Orueta. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – koldo.ulibarri@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0003-0573-986X>

Nola aipatu / How to cite: Ulibarri Orueta, Koldo (2023). «Inprentaren historiaren beharra grafiaren historia berreraikitzeke: lehen hurbilpena», *ASJU*, 57 (1-2), 885-906. (<https://doi.org/10.1387/asju.25986>).

Jasoa/Received: 2022-12-17; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

dugu (§ 1), bai eta grafiaren azterketari inprenten alderditik ekiteko proposamen bat ekarri ere (§ 2): lapurtera klasikoaren garaian argitaraturiko testuen azterketa bat proposatu nahi dugu eta, horretarako, garai eta eremu hartako liburuen edizio (ezagun) guztiak ekarriko ditugu zerrendaturik, ba-koitzaren inprenta zehazturik (§ 3). Azkenik, inprentaren eta grafiaren arteko loturak adibideekin ikusiko ditugu: Bordeleko Millanges eta de la Court inprimatzaileen tailerretatik ateratako testuen arteko ezberdintasun grafikoak ikusiko ditugu (§ 4).

HITZ GAKOAK: Euskal grafia; inprenta; Euskara Zaharra; lapurtera klasikoa.

Sarrera

Filologiaren esparruan, grafiarekiko interesa bigarrenkaria izan ohi da; oro har, grafia garaiko fonologia ulertzeko bidetzat hartu izan da: ahozko grabazioak egiteko aukera teknikorik ez zegoen garaietako hitzunek nola hitz egiten zuten iradokitzen digu grafiak eta horrexegatik alderdi honen azterketa orduko fonologia berre-raikitzeke ezin utzizko ikerbidea da. Horretan (ere) maisua izan dugu Jose Ignazio Hualde, bere azterketek (2010, bereziki) erakusten dute nola baliatu euskal eta gaztelau testu zaharren grafia orduko bilakabide fonetiko-fonologikoak ulertzeko. Hala ere, grafiak beste ikuspegi bat ere izan dezake, ez bakarrik fonetikoa; hizkuntza idatziaren gainontzeko atalek ez bezala, idazkera ez da hizkuntzaren elementu naturala, kulturala baizik: hitz egiten eta ahoskatzen era naturalean jabetzen gara, baina idazteko heziketa formala jaso behar du hiztunak (Auroux 1994); beraz, grafiaren azterketak lagun gaitzake testu bat bere testuinguru kulturean kokatzen: ohitura batzuen agertzeak edo ez agertzeak, letren formak eta letra batzuk eta ez besteak agertzeak testua atondu duenaren garaia edo lurraldea zehazteko baliatzen dezakegu (cf. Cano Aguilar 2000: 41). Horixe erakusten digute, atzengo urteetan, nazioarteko ikerketek (Baddeley 1993; Baddeley & Voeste 2012; Villa & Vosters 2015).

Grafiaren bestelako ikuspegi honetatik, euskal grafiaren historiaz aritu diren lanetan orokorrean egile edo testu konkreturen baten zein batzuen inguruko azterketak planteatu izan dira (Mitxelena 1979; Urgell 1987; Altzibar 1992; Agirre 1996, 1998, 2001). Grafiaren historia ikuspegi orokor batetik eginiko Mujikaren lan bide-urratzaileak ere (Mujika 2002), euskararen garai bat harturik ere, egileka egindako azterketa du oinarri. Gure ekarpen honetan, baina, grafiaren azterketan egileek eurek daukaten partaidetzaz gainerako aldagaiak badirela aldarrikatu nahi dugu: aurretik aipaturiko lanek erakusten digute idazleak giro kulturalen pean egon zirela (*scripta* edo idazte ohitura ezberdinekin), baina, ohitura grafiko horiek aztertzeko, testu inprimatuek leku garrantzitsua behar dutela deritzogu (Ulibarri prestatzen, cf. Ulibarri 2010: 50-53). Grafiaren azterketa batean ez bakarrik testugileak, baina inprentak eurak ere kontuan hartu behar direla planteatu nahi dugu hemen (cf. Lucía Megías 2009), jakina baita inprimatzaileek eta inprentek hizkuntzen gramatizazioan garrantzi handia izan dutela (Gaskell 1999; Rico 2005), baita euskaraz inprimatutako testuetan ere, azken azterketekin bat (Arcocha-Scarcia & Lakarra 2019; cf. halaber Urgell 2015a: xi). Ondoko lerroetan hau guztiau kontuan hartuko lukeen ikerketa baten oinarriak zirriborrazera mugatuko gara, lehen hurbilpen legez: ziur gaude Hualde bezalako ikertzaile batek oinarri hauek hobetzeko hainbat ohar iradokigarri izango dituela: gaiak elkarrekin mintzatzeko aukera sortzearekin bakarrik, bere egitekoa beteko du ekarpen honek.

Lehenengo atalean azterketa honen beharraz arituko gara, ikerketaren zergatia azalduz eta hau justifikatzeko zenbait ohar ekarriz (§ 1), eta bigarren atalean proposamena bera azalduko dugu (§ 2): Euskara Zaharrean *lapurtera klasiko* deitu izan den korrontearen barruan argitaraturiko testuen azterketa bat proposatu nahi dugu, ez testuen egileak kontuan harturik, testuak argitaratu zituzten inprentak oinarri harturik baizik. Hirugarren atalean, lana aurrera ateratzeko corpusaren zirriborroa dakargu: lapurtera klasikoko liburuen edizio (*ezagun*) guztiak bildurik ekarriko ditugu, bakoitzaren inprenta zehazturik (§ 3). Ikerketa honek izan ditzakeen emaitzen erakusgarri, proposaturiko corpusa txekeatzen hasiko gara Bordeleko *Millanges* eta *de la Court* inprimatzaileen tailerretatik ateratako testuen arteko ezberdintasunak ikusiz (§ 4).

1. Ikerketaren aurrekariak: zergatik inprentak?

Inprentekin zuzenean hasi aurretik, ohar bat egin nahi genuke *scripten* gainean. Erdi Aroko eskuizkribuen azterketako terminoa da bereziki, eta horretan ezaugarri amankomunak dituzten lekukotasunak *scriptatan* sailkatu ohi dira (cf. Dees 1988, 1991); lurralde beretik ateratako testuek ezaugarri grafiko eta gramatikal bertsuak izango dituztela aurreikusten da, dialekto zein kultur giro bertsuan sortuak direlako. *Scriptaren* kontzeptu hori, alderdi grafikotik bederen, baliagarri zaigu ez bakarrik Erdi Aroko testuetarako: edozein garaitan ohitura amankomunak dituzten idazleak ditugu, ezaugarri bat sortu edota beste norbaiti ikasitakoa hedatzen dituztenak. *Scriptaren* adibidea litzateke Urgellek (1987; cf. 2018: 608) erakusten zuena txistukari frikari palatala adierazteko xix. mendean sortu zen <sh> grafia aztertu zuenean: Añibarro-Zabalak, Zarauzko komentuan ziren idazleek, sortu ei zuten baliabidea eta grafia honek arrakasta izan zuen literatur gipuzkeran, Iztuetak, Iturriagak edo Arruek idazleek baliatu baitzuten, eta «Donostiako eskola» deitu izan den xix. mende amaierako idazleengana heldu baitzen.²

² Bide batez, hala Iztuetak (1824 eta 1847) nola Iturriagak (1842) Donostiako Jose Ignacio Barojaren inprimategian argitara eman zituzten euren lanak, non eta Zabalaren *Verbo Regular Bascongado* (1848) argitaratuko zen inprimaleku berean. Gainera, *ezaguna* da bi idazle horiek egin zuten 1841ean Zabalaren lanaren irakurketa eta kritika, obra argitaratzeko gomendatuz (Urgell 1987: 365). Urgellek planteatzen du Iztuetak hor ikusi zuela <sh> eta, ondoren, 1847an argitaratu testuan erabili zuela. Iturriagari dagokionez, Iztuetari bidalitako gutun batean ikusten du Urgellek <sh> grafema (*ibidem*). Badi-rudi, baina, azken idazle hori izan zela lehenengoa <sh> grafia erabiltzen Gipuzkoan: Barojaren inprentako fabuletan (1842) oraindik ere <gaiso-> erakoak darabiltza, baina Hernanin argitaratzen zaizkion 1841eko gramatikan <aushe> (16. or.) eta 1842ko elkarriketetan <urash> (10) ageri zaizkigu. Argitalpen hori legez kanpokoa dela dirudi, ziurrenik idazleari irakaskuntzarako baimena kendu ziotelako, saraketa bat medio (erbesteratua izateaz gainera; ik. Alberdi 1990: 4), ondorioz, egileza ezkutaturik dago A. P. I. A. siglen atzean edizioaren *egoera* nagusian (ik. Fernández de Casadevante 2015: 412-413) eta nork argitaratu zuen ere ez dakigu, ez baitakar inprentaren daturik. Alabaina, Iturriagaren adiskidetzagatik posible da Baroja inprimatzailea egon izana, hark argitaratu baitzuen fabula-liburua 1842an, irakaskuntzari inolako aipamenik egin gabe. Guztiagatik, inprimatu horretan Barojaren parte-hartzea gorabehera, Baroja inprimatzaileak eragina izan zezakeen ondoren etorritako «Donostiako eskolaren» idazkietan <sh>-ren erabilera hedatzean. Nola ez, hemen ere (cf. § 3) «Donostiako eskola» horren inprimatuaren azterketa behar dugu inprimatze-lantegien aldagaiaren ikuspegitik, hipotesi honen alde edo kontra egiteko.

Adibide honek grafian *scriptez* hitz egin genezakeela erakusten digu, garai zaharretan eta zeinbait ezaugarritan bederen: ohitura grafiko batzuk izango ditugu idazle talde edo testu sorta batean, momentu batean sortu, hedatu, orokortu edo gal zitezkeen ohiturak. Erdi Aroko *scripten* kasuan, eskuizkribuak kopiatzen diren tailerrak (scriptak) hartzen dira oinarri, eta proposatu nahi dugu gure kasuan ere testuak sortzen dituzten tailerrak hartzea helduleku, hots, inprimalekuak edo inprimatzaileak. Izan ere, inprenta-lanek euskal testuetan duten eraginaren gaineko gogoeta sakon bat planteatu da azken urteetan, ekarpen berriekin bat: Salaberrik (2007 eta 2011) ikusi du inprentetan uste genuena baino aldaketa gehiago egiten zietela testuei eta Urgellek egin Axularren edizioaren hitzaurrean ere (2015a: x e. hh.) ohar garrantzitsuak ematen ditu inprentek delako testuan izandako eraginez. Hastapeneko gainontzeko euskal literaturaren obretan ere (Etxepare, Leizarraga, *RS*) inprentak izandako paper nagusia aldarrikatu izan da euskararen gramatizazioari loturik (Arcocha-Scarcia & Lakarra 2019).

Badakigu zenbait kasutan, idazle teorikoez gainera (ik. Ulibarri & Urgell 2019, Madariagak egindako lanaren azterketa baterako), euskal testu inprimatuaren idazleek ere beta hartu dutela grafiaz inguruan gogoeta eta proposamen zehatzak egiteko. Idazle klasikoez grafia/ahoskera oharrak eskaintzen dituzte hitzaurreetan: Leizarragak (1571, «euskaldunei») irakurleari aipatzen dio «Heuscarazco hitzac, nola scribatzen, hala letra guciequin Latinén ançora pronuntiatzen-ere dirade: eta u vocala, bethequi, ou baliz beçala», eta Axularrek ere oharren bat dakar garaiko liburuetan aurki daitezkeen euskal grafemez (ik. beheago, § 4). Baina eite honen kasurik muturrekoena Oihenartek dakar; zehazki, bere euskal liburuak «De l'Orthographe Basque» sarrean. Hori izan daiteke idazle konprometituaren adibiderik paradigmakoena grafiari dagokionez, euskal hotsei atxikitzen zaien ortografia berezi bat baitakar, inguruko erromantzeen grafietatik aldendurikoa. Horrez gainera, Oihenarten obra inprentetako langileek zituzten irizpideen erakusle ere bada, testua moldiztegitik pasatzera koan Oihenarten lanak eta irizpideak trakestuz baitziren (ik. Altuna & Mujika 2003: 20), ziurrenik inprentako langileak (kajistak, zuzentzaileak edo editoreak) grafia horrekin ohiturik ez zeudelako, edo testua euren edo garaikoen ohitura grafiko zabalduetara moldatu zutelako (*ibidem*: 35 e. hh.).

Beste kasu batzuetan, balizko inpresoreari ere idazten zaizkio oharrak: hori irakurtzen da Etxeparearen abisuan («Aduertant Impressor & lectores...») ‘Ohar bitez inprimatzaileak eta irakurleak...’; ik. Arcocha-Scarcia 2008: 24). Etxeparek beharrezko deritzo letrek zer adiera duten adierazteari («...z ez dela sekulan *m*-ren orde ezartzen ez eta *i*-ren aitzinean *t* ez dela *c* ahoskatzen»), ziurrenik inprentakoek ezer alda ez dezaten. Honek iradokiko liguke lehen ere ikusitakoa, inprentakoek aldaketak egin ohi zituztela testuetan; hala, Etxeparek gatzigatzen die, egitekotan, kontuz ibili behar dutela <z> eta <ti> letrekin, ezin baitituzte aldatu *m* edo *c* letrekin (ik. beheago, aldaketa egiteko arrazoi bat ezagutzeko). Oharraz gainera, Etxeparearen testua bera ere adibide ezaguna da inprentaren eta grafia-ohituren arteko loturei dagokienez: Lafonen azterketatik (1951) badakigu Etxeparearen testua inprentara zihoanean idatzirik atal berrietan (hitzaurrean eta azken poema bietan, alegia) berrikuntza esanguratsuak daudela, eta grafiaren alderditik atal horietan lepokari afrikatua <tz>-ren bidez adieraztea dugu aipagarriena (gainontzeko testuan <z> darabil frikaria zein afrikatua adierazteko). Alde honetatik, berrikuntza «horietako zenbait (<tz> bereziki) inprentako

ohitura zabalduenek azal ditzakete» (Mounole & Lakarra 2018: 392), eta erakusten digu inprentaren aldagaiaren garrantzia grafiaren historian, eta azterketaren beharra areagotzen du.

Horrek inprenten izaeraz, historiaz eta garrantziaz gehiago sakondu duten filologietan ikusi dutenarekin lotzen gaitu: inprentek garrantzi handia izan dute testuen transmisioan, eta askotan horiei egotzi behar zaizkie testu eta edizioetan aurkitzen diren aldaerak eta aldaketak. Aldaketa horietako bat testuen grafia eta puntuazioa genuke (Urgell 2015a: xi).³ Gaztelaniatzko tradizioaren Urrezko Mendeko idazle gehienek grafia eta puntuazioa zuzentzea eta finkatzea inprenten betebehartzat zuten (Rico 2005: 77-8), eta inprentek zituzten langileak, bereziki zuzentzaileak, lan horren garrantziaz jakitun ziren (Clavería 2019). Izan ere, inprentatik ateratako testu batek atzean lan asko duela ikusi da, eta esku asko egon daitezkeela inplikaturik (cf. Garza 2000; Ruiz Astíz 2018). Frantziako tradizioari dagokionez ere, frantses testuetan azentuak eta bestelako marka tipografiko osagarriak sartzeko lehenengo aurrekaria inprimatzaile paristarren talde txiki bat izan zen: hasieran latinezko testuetarako baliatzen ziren elementuak eredu izan ziren ondoko frantses testuen tipografiarako (Baddeley 1993: 124 e. hh.).

Gainontzeko European ere antzeko egoera kausitzen ahal dugu: ortografia bateraturik egon ez arren, tipo-paratzaileek edo kajistek elkarrengandik ikasten zuten ogibidea eta euren lanak trukatzan zituzten; beraz, elkarri eragiten zioten, baita ortografian ere (Gaskell 1999: 432). Horrekin loturik, gertatu izan da arazo ortografiko baten atzean inprimatzaileak egotea, ez hizkuntzaren gramatizazioarekin loturiko arrazoi bategatik, inprentan sortzen zaien arazo bati aurre egiteko baliabideengatik baizik: eskuizkibuek ez bezala, inprentak gainditu behar duen arazoa da orrialdearen *justifikazioa*, hots, lerro guztiek beterik egon behar dute. Horretarako zenbait baliabide dituzte, hitzen arteko espazioak handitzeaz edo txikiagotzeaz gainera: letra batzuen *aldaera alografikoak* badituzte (<s> eta <f>, kasurako) eta beste batzuetarako *tipo lotuak* erabiltzen dira, espazioagatik tipo bi erabiltzerik ez dutenean (Voeste 2015: 249). Espazioa bete behar dutenean eta zuriune handiegirik ez uzteko, letrak bikoiztu ere egin ditzakete, eta horixe da Zainerrek 1475/76an argitaraturiko Biblian gertatu omen zena (*ap.* Voeste 2015): *und* 'eta' beharrean <unnd> idatzi zuten lerroko testua labur geratu eta justifikatzeko luzatu behar izan zutenean. Kajistek beharrez sorturiko grafia bikoitz erredundante hauek, dirudiezez, eztabaida mamitsuak eragin zituzten xv. eta xvi. mendeetako Alemaniako gramatikarien artean (Voeste 2015: 251 e. hh.). Kasurik muturrekoenetan, inprentakoek obra moldatu eta testua gehitzera zein kentzera heldu dira, beharrianen arabera (ik. Blecua 1983).

Azken ideia hori gurera ekarriz, testua justifikazio egokia ahalbidetzeko sorturiko *tipo lotu* horien artean euskalaritzarako esanguratsuak ere egon daitezke. Kajistek eskura zituzten *composed glyphs* tipoen artean atal berezi bat sortzen dute *s* luzearekin egindako [ʃ + X] loturek (<ʃt>, <ʃb>, <ʃl>), nahiko hedatuak inprentetako tipoen ka-

³ Honez gain, zenbait inprenta nagusik ez zuten inolako ardurarik testua aldatzeko eta euren interesei (askotan ekonomikoek) egokitzeko (cf. Chartier 2000: 249). Blecuak dioenez, inprimatzaileen artean bazegoen obrak gehitzeko ohitura, bai plegua osatzeko, bai testu famatu bati berritasuna emateko, bai erakargarriago egiteko (Blecua 1983: 178).

xetan (ik. 1. irudia). Alde honetatik, iradokigarria da pentsatzea lapurtera (Materra, Axular, Harizmendi...) zein zuberera klasikoko (Belapeire, Oloroeko katexima...) idazleen lanetan apikariz adierazten diren kontsonante aurreko bizkarkarien (*gaste, dituste*) adibide askoren atzean justifikazioaren eta tipo lotuak erabiltzearen beharra egon daitekeela (cf. Mounole & Gómez 2018: 499). Proposamen honek, nola ez, ikerketa berezitua planteatzera garamatza, baina ez testuaren edozein edizio erabiliz: testuen edizio faksimileen bidez bakarrik egin daiteke, edizio modernoetan ez baitira jasotzen tipo lotu horiek (cf. § 3).

A	B	C	D	E	F	G	A	B	C	D	E	F	G
H	I	K	L	M	N	O	H	I	K	L	M	N	O
P	Q	R	S	T	V	X	P	Q	R	S	T	V	X
â	è	î	ô	û	Y	Z	J	U	Æ	œ	ſ	Y	Z
á		í	ó	ú	;	fb	ff	ſ	œ	œ	+	[]	!
à	è	ì	ò	ù	ft	fl	fl	ç	ç	W	w	()	?
*	ct	J	U	j	ft	ff	ff	ë	ï	ü	É	É	”

°	ç	é	-	,		1	2	3	4	ſ	6	7	8
&	b	c	d	e		s	f	f	g	h	9	o	
z	l	m	n	i					fi	fi	k	<i>Fora Quadrats lira</i>	
y						o	p	q	f	f	:	<i>Quadrats lira</i>	
x	v	u	t	<i>Espaces</i>		a	r	.	,	<i>Quadrats</i>			

1. irudia

Inprenta-tipoen banaketa kaxan, ligadurak markatuta
(*L'Encyclopedie* 29; guk markatua, K.U.O)

Esandakoak esanda, uste dugu argi dagoela zergatik aldarrikatzen dugun euskal testuen grafiak aztertzean inprentak (ere) kontuan hartu behar ditugula, euskal grafiaren historiaren ikuspegi globala nahi izatekotan. Bada, azterketa horretarako lehenengo pausoa dakargu hurrengo atalean: inprentetatik ateratako testuen azterketa zehatza, eta lana bideratzeko proposamen orokorra.

2. Lan-proposamena: *Lapurtera klasikoaren lan inprimatuak*

Orain artean esandakoa laburbilduz, ezin dugu euskal grafiaren azterketa orokorrik egin euskaraz inprimatu zuten lantegiak kontuan hartu barik: inprentek partaidetza aktiboa izan zuten grafia-ohituren hedatzean eta hizkuntzaren gramatizazioan, oro har. Europako hizkuntza askotan gertatu bezala (Baddeley 2012), lehenengo euskal testu inprimatuetan ere berebiziko garrantzia izan zuten alderdi grafikoan (ik Arcocha-Scarcia & Lakarra 2019) eta, ondorioz, euskal grafiaren historiaren azterketa sistematikoa egiteko, ez ditugu euskal obrak egileka bakarrik baloratu eta aztertu behar, orain artean egin bezala: euskaraz argitaraturiko lanak zein inprentatetik atera den ere aintzat hartu behar dugu. Grafia bezalako ikergai konplexu batean datuetan ez galtzeko eta azterketa anekdotario ez bihurtzeko, beraz, beharrezko deritzogu ikerketa egituratua egiteari, eta hori da ondoko lerroetan egin nahi duguna: euskal testuen grafia azterketa bat inprentaren ikuspegitik nola egin daitekeen zirriboratu. Orain, lanaren eitea planteatu eta ikerketa bera bideratzea da lehentasuna. Horretarako, lapurtera klasikoaren garaian argitaraturiko liburuetan jarriko dugu arreta lehenbizi, grafiak izan duen bilakabidea aztertzeko.

Corpus edo garai hau hainbat arrazoiengatik aukeratu dugu: batetik, corpusaren tamaina bera dugu, ugaria eta nabarra baita: inprimatze-tradizio edo -mugimendu haren baitan hainbat herritako hainbat inpresorek hartu zuten parte. Bestalde, obra originalen argitaratze bakarraz gainera, inpresore ezberdinek garai ezberdinetan behin baino gehiagotan inprimatutako obrak baditugu. Berrargitalpen horiek ere ez dituzte guztiak ezaugarri editorial berdinak: egoki zehazturiko edizioak baditugu, inprenta-oin berriarekin (urtea, inprimatzailea), baina baditugu *edizio kontrafaktuak*,⁴ aurreko edizio baten errepikapen totala, inprentaren datu batzuk behintzat errepikatuz, bai eta *faltsutzeak* ere⁵ (Axularren *Geroko gero* izan daiteke horien adibide paradigmaticoa, portadan *Bordele* eta *Millanges* aipatzen badira ere, ez baitzen lantegi hartatik atera, ik. Urgell 2015a: xv e. hh.). Alde honetatik, gainontzeko inprimalekuetan (Iruñea, Bilbo...) izango ez genituzkeen nabardurak aurkituko ditugulakoan gaude.

Azkenik, aukeraketan beste arrazoi berebiziko bat ere badago; hots, inprimaturiko testu hauetan orain artean egin diren lanak badirela: Mujikak (2002) egindako euskal grafiaren azterketan testu horietako batzuek leku garrantzitsua dute, baina azken urteetan garai eta lurralde horietako zenbait obra zehatzen grafiaren azterketa berriak ere baditugu (osoak zein zatikakoak): Urgellek (2015a: xiv e. hh.) Axularren *Gero* eta *Geroko Gero* testuen arteko erlazioa finkatzeko hauen grafiak erkatzen ditu, eta Marterraren dotrinaren lehenengo bi edizioen azterketa zehatza (Krajewska *et al.* 2017)

⁴ «*Edizio kontrafaktuak* aurreko edizio legalen lekua hartu nahi duten berrargitalpenak dira. Testua estutu ohi dute, atarikoak osorik edo zati bat behintzat errepikatu eta kopiatzen dituzte inprimategi-zigiluan dauden datu batzuk edo guztiak —normalean urtea aldatu ohi dute—. Batzuetan portadan ageri den liburu-saltzailearen izena aldatzen dute, eta edizio kontrafaktuaren editorearen izena jarri. Edizio originalaren garaikide izan daiteke; hala ere, hauetako asko ostekoak izan ohi dira» (Pedraza *et al.* 2003: 254; itzulpena neurea K.U.O.).

⁵ «*Edizio faltsutuak* inprenta-oineko datuak faltsuak dituen edizioak dira, bai eta baimen eta oniritziak ere. Aurreko edizioaren portada imitatzen dute, baina izenburua, urtea edota inprimatzailearen edo liburu-saltzailearen izena aldatzen dituzte» (Pedraza *et al.* 2003: 254; itzulpena neurea K.U.O.).

ere gidari izanenez lehenengo pauso hauetan. Azken honi loturik, berriki corpus honen testuinguru soziolinguistikoa aztertu izan da (Zuloaga & Krajewska 2021), eta horrek ere lagundu gaitzake testuen eta inprimatuaren nolakoa zehazten eta proposatzen dugun ikerketa aberasten.

Corpusa kronologikoki zehazteko, *Euskara Zaharra* hartuko dugu ikerketa-garaitzat, eta denbora-tarte horretan lapurtera klasikoaren barruan inprimaturiko euskal testuak (ik. Oihartzabal 2001, cf. Mounole & Gómez 2018: 484), lehenengo momentu honetan. Euskararen periodizazioan garaiari ematen zaion amaierako data (1745) 1760ra arte atzeratu dugu gure planteamentuan; Xurioren *Jesukristoren imitazioaren* 3. edizioa arte, alegia. Hala, Haranederren bi obra inprimatuak ere baliatuko ditugu, eta Lehenengo Euskara Modernoak ekarritako berrikuntza grafikoak lehenengo urteetan Iparraldeko inprimategietara heldu ote ziren xerkatu ahalko dugu (badakigu hango testuetara berehala heldu zirela berrikuntza batzuen oihartzunak, ik. Padilla-Moyano 2011). Corpusaren muina inprentak direnez, eta ez testuak edo egileak eurak, aukeraketan ez dugu bakarrik *editio princeps*etan (hots, lehenengo edizioetan) arreta jarriko: testuen berrargitalpenetan agertzen diren aldaketa grafikoak aztertzeak ere oso ekarpen baliotsuak izango dituelakoan gaude; ondorioz, ipinitako kronologia-tartean argitaratu ziren edizio guztiak bildu nahi ditugu gure azterketan. Garai honetan sorturiko obra batzuk inprimatzen jarraitu ziren jarri dugun epeaz kanpo: *Exercicio spirituala bere salbamendua eguiteco* (Vinson 46)⁶ liburua 1716an argitaratu zen lehenbizikoz eta 63 argitalpenen ostean, Vinsonek dakarren azkena 1888koa dugu (Vinson 46); 1720an Xuriok itzuliriko *Imitazioeak* ere bederlatzi argitalpen izan zituen 1872ra arte (Vinson 49). Halakoetan, hasieran ezarritako denbora-tartea mantendu dugu, eta tarte hartan argitaraturiko edizioak bakarrik sartuko ditugu gure zerrendan.

Irizpide horiekin zerrenda batean ezarri ditugu obra eta edizio guztiak (ik. § 3). Zerrendak erakusten digu lehenengo garaian Bordele zela euskal testuak ekoizteko bilgunea, bereziki Millanges eta de La Court inprimatzaile-familien lantegiak; tartean Baionan ere inprimatzen bazen ere (1648an baditugu Baionan argitaraturiko liburua), 1677ra arte Baiona ez zen euskal liburuen ekoizle nagusi bihurtu; zehazki, Maffre (Bordeleko Millanges inprimatzailearen Baionako ordezkaria izan zitekeena; ik. Atutxa 1999: 246, 18. oin-oharra) eta Fauvet inprimatzaile-familia hiri hartan ezarri ziren arte. XVIII. menderako, Fauvetarrek hartu zuten euskal testuen monopolioa Baionan, eta egiteko horrekin jarraitu zuten Lehen Euskara Modernoan ere (Urgell 2018: 438).

Behin corpusa ezarrita, oraingo gure lana edizio bakoitzaren ale bat behintzat biltzea litzateke. Egungo baliabide elektronikoak erabilita eta artxiboek euren funtsak digitalizatu eta eskura jartzeko egin duten lanari esker, baditugu edizio askoren faksimileak, baina oraindik biltze-fasean gaude. Edizio faksimileak hartu behar ditugu, eta ez inork egindako edizio kritikoak, zehaztasun grafiko batzuk galtzen baitira edizio modernoetan hartzen diren irizpideengatik (cf. § 1 atala).

⁶ Besterik esan ezean, *Vinson* laburdurari laguntzen dion zenbakiak ikertzaileak liburuari (eta horren edizio bakoitzari) ipinitako katalogo-zenbakiari dagokio. Bestela, lan honetako orrialde zehatz bati erreferentzia egiteko [abizen urte: orrialde] sistema orokorra erabiliko genuke.

Bilketa egitearekin batera, aztertu beharreko ezaugarri grafikoen behin-behineko zerrenda bat ere atondu dugu,⁷ hasieran arreta non jarri ikuste aldera. Nola ez, zerrenda behin-behinekoa dugu, lanean hasteko oinarri bat, eta ziur gaude ikerketarekin aurrera joan ahala moldatu beharko dugula, dela ezaugarriak gehituz edo kenduz, dela ezaugarrien nolakoa hobeto zehaztuz:

1. <u> / <v> eta <i> / <j> txandakatzea
2. *j-ren adierazpen grafikoa
3. Hiatoa markatzeko hotsaren adierazpena: *ziteke<i>en*
4. Herskari ezpainkariaren adierazpena <v> /
5. Txistukariaren adierazpen grafikoa
 - 5.1. Txistukari palatalak
6. Herskari hasperendunak
7. Herskari belarrak
8. <mp>, <mb> / <np>, <nb>
9. zeinu diakritikoak
 - a) sudurkariaren ordezeko <^>
 - b) bokalismoa markatzeko <¨ >
10. Grafia etimologikoak:
 - a) erdaratikoak: <ph>*iloso<ph>ia*, <Ch>*ristus*
 - b) euskaratikoak: *hi<tz>cunça*, *ba<tt>asun*
11. Sudurkari palatalen adierazpena: <iñ> - <ñ> / <in>
12. Gainontzeko palatalen adierazpena: <tt>, <ll>

Inprentez ari garenean, zehaztu behar dugu tailerrak hartuko ditugula kontuan eta familiaka egingo dugula lan hasieran; hau da, inprenta beraren lantzat hartuko ditugu *Jacques Millanges*, *Gillen Millanges* zein *Jacobe Mongiron Millanges* inprimatzaileen lanak, guztiak *Millanges* tailerraren parte baitira (cf. Batcaveren, Claudinen, Desgravesen edo Labadien lanak bibliografian, Bordele zein Baionako inprenten historiarako). Aukera honek ikuspegi ximpleegia dakarrela badakigu: nagusi bakoitzak irizpide propioak izan ditzake eta, ondorioz, inprimatzaile bakoitza bereiz tratatu beharko litzateke. Hala ere, kontuan izan behar dugu alde batetik nagusiaren izena dagoela, baina inprentaren langileak ere badaudela bestalde, eta azken horiek testuaren egiazko moldatzaileak, Gaskellek (1999: 132-139) eta Ricok (2005: 77-78) gazarritzen dituztenez. Horren adierazle da, orobat, Urgellek *Geroko Gero* edizioa azterterakoan eta *Gero* edizioarekin erkatzean dioskuna (2015a: § 1.3): bera langileez edo paratzaileez ari da, eta ez, berez, inprimatzaileaz. Inprentaren jabearen izena aldatu baina langileak (eta euren ohiturak) mantentzen bide ziren; kontrara, nagusia aldatu gabe langileak edota ohiturak alda zitezkeen. Honexegatik, inprenta baten atzean pertsona (eta aldagai) asko egon daitezkeenez, lehenengo momentu honetan erosoago

⁷ Ezaugarrien zerrenda honetan, berebiziko garrantzia izan du Blanca Urgell ikertzailearen eskarmentuak testu zaharren grafiarekin, bai eta bere gomendio eta oharrek ere; ohar xume honek ezin erakutsi ditzake merzei dituen eskerrak.

ikusten dugu inprimatzaile-familien arabera lan egitea eta, datuak (hala linguistikoak nola historikoak) bildu ahala, euren arteko eragin eta aldagaiak zehazten joatea. Izan ere, Bordeleko eta Baionako inprentaren historiak arakatu beharko lirateke (cf. Desgraves 1972, 1975, 1995, 1998; Labadie 1900, 1913; Godinot 1965 eta beste), bereziki horiek dokumentatzeko erabili dituzten lehen mailako iturriak zeintzuk diren ezagutzeko eta lantegietako beharginen zerrendarik edo antzeko dokumentu pribaturik gordetzen diren jakiteko: agian dokumentu horietan paratzaile edo zuzentzaile euskaldunik bazela erakusten diguten datuak egongo dira (cf. de Páiz 2017, Gaztelako inprentan horiek duten garrantziaz).

3. Corpusa

Corpusa izango litzatekeen hau, orobat Vinsonen datuz (1891-98) osaturik legoke eta, hein batean, ondoko ikertzaileek egindako ekarpenez gaurkotua. Oraindik *in progress* dagoen zerrenda da hona dakarguna, eta gure nahia litzateke zerrenda hau osatzen joatea inprimatzaileen historia eta testuen konparaketarekin aurrera joan ahala, irizpide grafikoan aldetik garrantzitsuenak izan daitezkeenetan arreta jarritz.

Zerrenda osatzeko, irizpide hauek hartu ditugu:

- a) Inprimatze-urtearen arabera zerrendatu ditugu lanok, hala lehenengo argitalpenak nola berrargitalpenak (azken hauek argitalpen urtea letra lodiz ekartzen dute). Urterik ez dugunean, bitara jokatu dugu: hala egiten duenean, Vinsonen ematen dion behin-behineko data ezarri diogu, *c.* laburdurarekin aurrean. Vinsonen datarik ematen ez dion edizioa XXX baliatuz markatu dugu. Data batzuk apostrofearekin eman ditugu: horrekin adierazi nahi dugu, Vinsonen iritziz, edizio hori *edizio kontrafaktua* dela eta, ondorioz, data ez dela egiazkoa.
- b) Idazlearen (edo argitaratzea agindu zuen gotzainaren) izena eta idazlanaren izenburuak egungo grafiaz eman ditugu, bietarako Euskal Klasikoen Corpusak (*EKC*) darabilen grafia baliatuz.
- c) Ondoren, zutabe banatan inprimalekua eta inprimatzailea paratu dugu. Lekuari dagokionez, euskarazko egungo forma arautuan ezarri dugu; inprimatzailearekin, ordea, portadan agertu bezala (edo Vinsonen eman bezala) idatzi da. Egindako aldaketa bakarra <I> / <i> eta <V> / <u> hizkiak gaur egungo sistemaren arabera moldatzea izan da. Edizio batzuen kasuan, gugana heldu diren aleak azalik gabekoak dira (eta ondorioz, inprenta-oinik gabeak): horiek <??> baliatuz markatu ditugu, bai argitalpen-lekua, bai inprimatzailearen izena. Ale ezagunik gabeko edizioak *galdua* moduan markatu ditugu. Kasuren batean, Vinsonen non argitaratu zen esaten digu, eta Vinsonen informazio hori parentesi karratuen bidez erantsi dugu gure taulan.
- d) Azkenik, edizioetako bakoitzari Vinsonen emandako zenbakuntza ere gehitu diogu, ikertzaile frantsesaren lan hau oraindik ere erreferentea baita testu zaharren katalogazioan.

Urtea	Egilea, <i>Izenburua</i>	Inprimalekua	Inprimatzailea	<i>Vinson</i>
1617	Matera, <i>Doktrina Kristiana</i>	Bordele	Pierre de la Court	11.a
c. 1620	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Lyon	A. Rovyer	12.a
1623	Matera, <i>Doktrina Kristiana</i> (2. argit.)	Bordele	Jacques Millanges	11.b
1627	Etxeberri Ziburukoa, <i>Manual debozio- nezkoa</i>	Bordele	Guillen Millanges	14.a
c. 1630	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	[Bordele]	[Guillen Millanges] <i>Galdua.</i>	15.a
1635	Haranburu, <i>Debozino eskuarra</i>	Bordele	P. de la Court	16.a
1636	Etxeberri Ziburukoa, <i>Elizara erabiltzeko liburua</i>	[Bordele]	[Guillen Millanges] <i>Galdua.</i>	17.a
1641	Pierre Argaiñarats, <i>Abisu eta exortazioe probetxosak</i>		Galdua.	21
1642	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaIETAQUA</i>	Baiona	Frances Bourdot	12.b
c. 1642	Haranburu, <i>Debozino eskuarra</i>	???	???	16.b
1643	Axular, <i>Gero</i>	Bordele	G. Millanges	22.a
1645	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Bordele	Guillen Millanges	15.b
1648	Matera, <i>Doktrina Kristiana</i> (3. argit.)	Agen *Baiona	J. de Gayau *Francez Bourdot <i>saldu</i>	11.c
1651	D'Olzek argitararazitako <i>Pregarioak Baionako Diozezakotz</i> [lapurtera]	Bordele	G. de la Court	23.a
1651	D'Olzek argitararazitako <i>Pregariak Baionako Diozezakotz</i> [baxenafarrera]	Bordele	G. de la Court	23.b
1656	Pouvreau, <i>Giristinoaren dotrina</i>	Paris	Jean Roger	25
1660	Harizmendi, <i>Ama Birjinaren Ofizioa</i>	Bordele	G. de la Court	27
1664	Pouvreau, <i>Filotea</i>	Paris	Claude Audinet	28
1665	Pouvreau, <i>Gudu Espirituala</i>	Paris	Claude Audinet	29
1665	Argaiñarats, <i>Deboten Brebiarioa</i>	Baiona	B. Bosc	30
1665	Etxeberri Ziburukoa, <i>Elizara erabiltzeko liburua</i>	Bordele	J. Mongiron Millanges	17.b
1666	Etxeberri Ziburukoa, <i>Elizara erabiltzeko liburua</i>	Paue	Joannes Desbaratz	17.c
1669	Etxeberri Ziburukoa, <i>Manual debozio- nezkoa</i>	Bordele	Jacobe Mongiron Millanges	14.b
1677	Etxeberri Dorre, <i>Liburu hau da Itasoko Navigazionekoa</i>	Baiona	[Antonio] ⁸ Fauvet	37

⁸ Originala hautsita dago, eta Vinsonen berreraikitzen du urte horretako inprentaren jabearen araber.

Urtea	Egilea, <i>Izenburua</i>	Inprimalekua	Inprimatzailea	<i>Vinson</i>
1684	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Baiona	Antoine Fauvet	12.c
1684	Aranbillaga, <i>Jesu Kristoren Imitazionea</i>	Baiona:	Antonio Fauvet	38
1686	Gasteluzar, <i>Egia katolikak</i>	Pauc	Joannes Desparatz	39
c. 1690	[Harizmendik zuzendutako] Joanes Haranburu, <i>Debozino eskuarra</i>	???	???	16.c
1693	Materra, <i>Buketa lore dibinoena</i> (4. arg.)	Baiona	Piæres Dussarrat	11.d
c. 1693	Leon apezpikuaren aginduzko <i>Doktrina Kristiana</i>	Baiona	Antonio Fauvet	23.f
1697	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre ⁹	15.c
1697'	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre	15.c-1 ¹⁰
XXX	Axular, <i>Geroko Gero</i>	Bordele	G. Millanges	22.b
1699	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre	15.d
1699'	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre	15.e
1704	Materra, <i>Doktrina Kristiana</i> (5. arg.)	Baiona	Maffre	
1716	Exerzizio spirituala bere salbamendua egiteko	Galdua.	Galdua.	46.a
1718	Exerzizio spirituala bere salbamendua egiteko	Baiona	M. Roquemaurel	46.b
1718	Etxeberri Sarakoa, <i>Lau-urdir gomen-diozko karta edo gutuna</i>	Baiona	Mateo Roquemaurel	47
1720	Xurio, <i>Jesus-kristoren Imitazionea</i>	Bordele	Guillame Boude' Boe'	49.a
1720'	Xurio, <i>Jesus-kristoren Imitazionea</i>	Bordele	Guillame Boude' Boe'	49.b
1731	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Giristinoen doktrina laburra, haur-gastei irakhasteko</i>	Baiona	P. Fauvet	54.a
1733	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Baionako Diozesako bigarren katixima</i>	Baiona	P. Fauvet	55.a
1733	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Baionako Diozesako bigarren katixima</i>	Baiona	P. Fauvet	55.b
1733	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Baionako Diozesako bigarren katixima</i>	Baiona	P. Fauvet	55.c
c. 1736	Ama Birjina ren iragaitza Orazino debota kontenplazinos betea	Baiona	P. Fauvet	58.a

⁹ Badirudi Maffre Millangesen Baionako ordezkaria izan zitekeela (cf. Atutxa 1999: 246, 18. oin-oharra).

¹⁰ Bi edizio ezberdin daude Vinsonen zenbaki honen barruan: ik. Atutxa (1999: 246).

Urtea	Egilea, <i>Izenburua</i>	Inprimalekua	Inprimatzailea	<i>Vinson</i>
c. 1741	<i>Exercizio spirituala bere salbamendua egiteko</i>	Baiona	Paul Fauvet	46.c
1741	Harriet, <i>Gramatika eskuaraz eta frantzez</i>	Baiona	Fauvet alarguna & J. Fauvet	61
1749	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Gristinoen doktrina laburra, haur-gastei irakhasteko</i>	Baiona	P. Fauvet	54.b
1749	Haraneder, <i>Filotea</i>	Tolosa	Joannes-Franses Robert	77.a
1750	Haraneder, <i>Gudu Izpirituala</i>	Tolosa	Joannes-Franses Robert	78.a
XXX	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Baiona	Paul Fauvet	12.d
XXX	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Baiona	P. Fauvet	12.e
XXX	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Baiona	Paul Fauvet	12.f
XXX	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Baiona	P. Fauvet	12.g
XXX	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	P. Fauvet	15.f
XXX	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	J. Fauvet [1731-1770]	15.g
XXX	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	P. Fauvet	15.h
XXX	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	P. Fauvet	15.i
XXX	<i>Exercizio spirituala bere salbamendua egiteko</i>	Baiona	Paul [Fauvet]	46.d
XXX	<i>Exercizio spirituala bere salbamendua egiteko</i>	Baiona	Fauvet	46.f
XXX	Exercizio spirituala bere salbamendua egiteko	Baiona	Fauvet	46.e
1757	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Gristinoen doktrina laburra, haur-gastei irakhasteko</i>	Baiona	P. Fauvet	54.c
1759	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Gristinoen doktrina laburra, haur-gastei irakhasteko</i>	Baiona	P. Fauvet	54.d
1760	Xurio, <i>Jesus-kristoren Imitazionea</i>	Baiona	Paul Fauvet	49.c
XXX	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Gristinoen doktrina laburra, haur-gastei irakhasteko</i>	Baiona	Paul Fauvet	54.e
XXX	Lavieuxvillek inprimatutako <i>Gristinoen doktrina laburra, haur-gastei irakhasteko</i>	Baiona	Paul Fauvet	54.f

3.1. Corpusaren eranskina

Bereiz jarri ditugu, bigarren eranskin moduan zuzenean lapurtera klasikoan idatzirik ez diren edo zehazturiko kronologiaren barruan inprimatu ez ziren testuak. Alabaina, uste dugu hainbat arrazoirengatik interesgarriak izan daitezkeela gure azterketan, dela ikerketan sortuko zaizkigun hipotesiak edo usteak berresteko, dela behin ikerketa amaiturik, bigarren urrats batean aurrera jarraitzeko.

Datuak aurkezteko, aurreko zerrendan erabilitako irizpideei jarraituko diegu honetan ere.

Urtea	Egilea, Izenburua	Inprimalekua	Inprimatzailea	Vinson
c. 1660	Pouvreau, <i>Jesusen Imitazioea</i>		<i>Eskuizkribuan gordea.</i>	
1666	Tartas, <i>Onsa hilceco bidia</i>	Ortheze	Jacques Rouyer	33
1670	Tartas, <i>Arima penitentaren okupazione debotak</i>	Ortheze	Jacques Ro[uyer]	34
XXX	Pronus singulis diebus Dominicis	????	????	36.a
1696	Belapeire, <i>Katexima Laburra</i>	Paue	Jerôme Dupoux	43
1706	Maytie, <i>Katexima Oloroeko Diozezaren zerbützüko</i>	[Paue]	Jerôme Dupoux	44.a
c. 1720	Urte, <i>Genesis eta Exodo-aren itzulpenak</i>		<i>Eskuizkribuan gordea.</i>	
1734	Otoitze eta kantika espiritualak	Paue	Jean Dupoux	56.a
c. 1740	Haraneder, <i>Jesu Christoren Evangelio Saindua</i>		<i>Eskuizkribuan gordea.</i>	
1743	Maytie, <i>Katexima Oloroeko Diozezaren zerbützüko</i>	???	???	44.b
1746	Maytie, <i>Katexima Oloroeko Diozezaren zerbützüko</i>	Paue	Jean Dupoux	44.c
1748	Otoitze eta kantika espiritualak	???	???	56.b
c. 1750	D'Aulanek inprimatutako <i>Katixima edo fediarene eta guiristino-eguien explicacione laburra</i>	Paue	G. Dugue' eta J. Desbaratz	60.a
c. 1770	D'Aulanek inprimatutako <i>Katixima edo fediarene eta guiristino-eguien explicacione laburra</i>	Akize	G. Roger Leclercq	60.b
1786	D'Aulanek inprimatutako <i>Katixima edo fediarene eta guiristino-eguien explicacione laburra</i>	Akize	G. René Leclercq	60.b

4. Lehen hurbilpena: Bordeleko *Millanges* eta *De la Court* inprentak

Proposatzen ari garen azterketaren lehen lagin bat Materraren liburua aztertu eta editatu duen ikertaldea egindako lanean badugu (Krajewska *et al.* 2017): lehenengo edizio biak konparatu zituzten (egileak berak «kontrolatu» zituen edizio biak, alegia), eta batetik bestera irizpide-aldaketak bazirela ikusi zuten, baita grafian ere; batzuetan inprentaren eragina aintzat hartzen badute ere, editoreek aldeak bereziki idazlearen hautu grafikoari loturik daudela aldarrikatu zuten (Krajewska *et al.* 2017: 134). Definitzen ari garen lanak balioko liguke ideia horren aldeko zein kontrako argudioak gehitu eta zehazteko. Alde honetatik, inprenten grafiaren azterketa orokorra egiteak balioko luke ez bakarrik egilea bizirik zenean egindako moldaketak azaltzeko (cf. Urgell 1987), Materraren edizioen artean bezala, baina baita testuak inprentarik inprentara (edo inprenta nagusirik nagusira) izandako gorabeherak txeketzeko; alegia, egilearen kontroletik kanpo egindako edizioak ere ikertzeko.

Materraren adibidera itzuliz, badakigu 1617ko edizioa Bordeleko *Pierre de la Court* inprentan egin zela, eta bigarren edizioa Bordelen bertan egin bazen ere, oraingoan Jacques Millangesek sinatzen du 1623an; hots, xvii. mendeko literatur lapurtarraren hasieran egondako bi inprimatzaile nagusien (ik. § 3) tailerretatik atera zen edizio bakoitza. Honela bada, bi inprimaleku horiek garrantzitsuak izan ziren literatura honen agerpenean; baina, testuek erabiltzen duten euskara-motan ere garrantzia izan zuten? (§ 1). Horri erantzuteko, beste galdera bati erantzun beharko genioke: Materraren 1617 > 1623ko irizpide-aldaketetan zenbat dagokio egilearen irizpide-aldaketari eta zenbat inprenta ezberdinetako lana izateari? Horixe da ondoko lerroetan landu nahi duguna.

Horretarako, aldaera grafikoak erkatzeko corpusa osatu behar dugu: *De la Court* eta *Millanges* lantegietatik ateratako lanak. Honetarako da lehen aurkeztu zerrenda: *Pierre de la Courten* lanak dira Haranbururen *Debozino eskuarra* (1635; Harb) eta bere seme G. de la Courtek (cf. § 2) sinatzen ditu D'Olzek argitararazitako *Pregarioak* (1651), hala lapurterazko (*FPrL*) nola baxenafarrerazko (*FPrBN*) bertsiotan. Jacques Millangesek berak ez zituen euskal obra gehiago argitaratu, baina bere seme Guillen Millangesen izenean agertu ziren Etxeberri Ziburukoaren lanak (EZ),¹¹ bai eta Axularren *Gero* (1643; Ax) ere.

Aldaketa grafikoen lehenengo adibidea herskari hasperendunak adieraztean ikusi zuten Materraren editoreek (gure zerrendako 6. puntua, cf. § 2), Urgellek (2015b) egindako baieztapen baten argitan. Materraren 1617ko edizioaren alea aurkitu aurreko lanean, Urgellek ikusten du Leizarragak herskari horietarako proposaturiko grafia-sistemak jarraipena izan zuela xvii. mendeko literatur lapurteran, Materraren idazkian bederen:

Are nabariago dateke herskari hasperendunen adierazpena, ondoko ia guztiek honetan Materreregangandik aldenduko baitziren. Izan ere, Leizarragak <pp>, <th> eta <k> baliatu zituelarik, Etxepareregangandik urrun (<pph>, <th>, <qh>), hori bera da funtsean Materreren sistema, Etxeberri Ziburukoarengandik aurrera <ph>, <th> eta <kh> grafema analogoak hobetsiko bazituzten ere. (Urgell 2015b: 656)

¹¹ Lehen hurbilpen honetan *Manual debozionezkoa* (1627) obra hartuko dugu haintzat, hauxe baita egungo egunera lehenengo edizioan heldu zaigun ziburutarraren obra bakarra.

Lehenengo edizioa agertzearekin, editoreek ikusi zuten Urgellen baieztapena bigarren edizioari zegokiola bakarrik, 1623koari, lehenengoak beste grafia-sistema bat erabiltzen baitu hots hauendako, Etxeberri Ziburukoarengandik aurrera orokortutako <ph>, <th> eta <kh>, alegia (Krajewska *et al.* 2017: 133). Gure corpusera joaz, ikus dezakegu De la Courten gainontzeko lekukotasunek ere <ph> eta <kh>-ren alde egiten dutela, Materraren lehenengo edizioak egin bezala: <aip-hatuco, epha> (Harb) eta <aphezaren> (*FPrL*) ditugu batetik, eta <vkhatcea, lekhu> (Harb) eta <lekhu, bekhatu> (*FPrL*) bestalde. Millangesen tailerreko lanetara bagoaz, *p* hasperendunaren adierazpenean Materraren bigarren edizioarekin egiten du bat Axularrek (<aippatu>), baina ez Etxeberriek, azken horrek <aiphatu, aphur> grafemak baitakartza. *K* hasperendunari dagokionez ere, EZ-k <kh> grafemaren bidez adierazten du (<bekhatu, khoroa>); Axularrek <kh>-z gain (<lakhu>), <cc> grafia ere erabili zuen <leccu> (ik. Mujika 2002: 182 e. hh. eta 316 e. hh.). Horretan, badirudi bat egiten dutela De la Courtekin eta Millangesekin, <ph>, <th> eta <kh> grafema analogoen alde, eta obra konkretu batzuetan bakarrik (egileak kontrolaturikoetan, apika?) baino ez dira aldentzen joera horretatik Materraren eta Axularren obrak, Leizarragak jorratu zuen bideari atxikiz.

Herskari hasperendunekin batera, beste hots biren adierazpenetan ere aldaketa ikusi zuten Materraren edizio bien artean, sabaiaurreko igurzkarri ahoskabean (Krajewska *et al.* 2017: 137) eta euskara batuan <tt> grafemarekin adierazten dugun *t* adierazkorrean (*ib.* 134; gure zerrendako 2. eta 12. puntuak, ik. § 2). Alde honetatik, bata zein bestea interesgarri suertatzen dira lapurtera klasikoaren gramatizazio-prozesuan, horiez oharrarazten baitio Axularrek irakurleari hitzaurrean, garaian hots horien idazkera mota bi zirela argituz:

Bada eskiribatzeaz denaz bezanbatean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren bada hunetan ere diferentzia. Batak eskiribatzen du <18> *chehero*, bertzeak *gehero*. Batak *chedea*, bertzeak *gedea*. Batak *ichilic*, bertzeak *igilic*. Batak *lachoa*, bertzeak *lajoa*. Batak *choil*, bertzeak *joil*. Batak *quecho*, bertzeak *quejo*. Batak *chuchen*, bertzeak *jugen*. Eta hunela, bada bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, norik bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baitituzte. Ordea, zeren ezpaitira hamar bat hitz edo bai zen, hunela diferentki eta bi aldetara eskiribatzen direnak: halatan nik ere zenbait aldiz eskiribatukoituz alde batera liburuan barrera, eta bertze aldera liburuaren bazterrean, *in margine*, batbederak zerbait kontentamendu duen amoreakgatik.

Finean, eskiribatze hunen gainean diot ezen, nola latinak bi *i* eta bi *u* egiten baititu bat eta hartzen batentzat: *Adjicio*, *Conjicio*, *Vultus*, *Vulnus*. Eta espainolak ere bi *l* egiten baititu bat, *llamo*, *lloro*, hala euskarak ere bi *t* egiten dituela bat: *tipia*, *tipitto*, *gizontto*, *haurtto*. Zeren eskiribatzeri *chipia*, *chipichoa*, *gizonchoa*, *haurchoa* ezta ongi heldu, euskaraz ongi minzaten direnen artean. (Axular 1643: 17-18, in Urgell 2015a: 10-11)

Sabaiaurreko igurzkarri ahoskabean idazkerari dagokionez, Materrak <x> grafia du lehenengo edizioan (<xahutcea, xehero>) baina bigarrenean <j>-ren eta <g>-ren alde egin zuela dirudi, <jahutcea, gehero>, hitz barruan (amaieran oraindik <x>; Krajewska *et al.* 2017: 137); hala, zalantza grafikoaren testigantza izatearekin batera (Salaberri 2013: 646, 29. oin-oharra, *ap.* Krajewska *et al.* 2017: 137) ikusten dugu Axularrek aipaturiko bigarren taldean kokaturik legokeela Materraren bigarren edizioa. Alde honetatik, badirudi hots honen grafian Materraren edizioak zein bere aldetik doazela, baina, agian, grafia-ohitura ezberdinok ezin zaizkio inprentari egotzi,

ezpada idazle bakoitzaren hautuei. Izan ere, hala De la Court nola Millanges inprentek <ch>-ren alde egin zutela erakusten digu corpusak: <chahu, chuchen> (Harb) eta <chahutu> (*FPrBN*) dugu lehenengo inprentako obretan, eta <chahuqui, chehero> (EZ) eta <chehero> (Ax) bigarrenengoetan. Aipatzekoa da aukeren artean Axularrek Materraren bigarren ediziokoak hartzen dituela aintzat eta, *in margine* bada ere, Millanges inprenta berean ateratako edizioko ohitura ere islatzen duela.

Besterik da herskari sabaikari ahoskabearekin (egungo euskara idatzian <tt> grafiaz adierazten dugun hotsarekin) gertatzen dena: Materrak lehenengo edizioan (De la Courtekoan) <ch> grafia darabil hots hori adierazteko (<chipia>);¹² Millangesek argitara emandakoan, ordea, ondoan Axularrek oniritzitako <tt> grafema ageri da (<ttipia>; ik. Krajewska *et al.* 2017: 134). Hemen bai, badirudi inprenta bien arteko aldea legokeela, Millangesen tailerretik ateratako Etxeberri Ziburukoaren eta Axularren liburuek ere sistematikoki <tt> darabilten arren (<ttipi> eta <liburutto>), badirudielako De la Courteko obrek, zerbait egitekotan, <ch>-ren alde egin zutela: *zerbait egitekotan* diogu, zeren eta Haranbururen kasuan aukerako adibide guztiak <t> grafiaz ageri baitira (<tipi>, <guti>); beraz, suposatuta beharko genuke idazle hark (edo inprentak?) ez zuela hots palatala, idatziz behintzat, adierazi nahi izan. *Pregarioen* kasuan, Baxenafarroako aldaeran bakarrik aurkitzen ahal dugu adibide aproposa, <chipi>; hor, baina, hizkera-aldaketak gorabeherak dakartza, eta ez dakigu ziur grafia horren atzean dagoen hotsa *t* palatala (*ttipi*) edo txistukari frikaria (*xipi*) den (ik. *OEH*, s.v. *ttipi*).

Egin dugun konparaketak uzta eskasa ekarri digu, beraz: ezin izan dugu frogatu ez bairik gabe Materraren dotrinaren 1617ko eta 1623ko edizioetan ageri diren aldaketen atzean inprentak eurak egongo zirenik. Agian ez dugu emaitza oparogea, eta ondoriozta dezakegun gauza bakarra da egile bakoitzak bere irizpideak islatu zituela testuan, baina hori bera ere aberasgarri zaigu, erakusten baitu euskal idazleak (Materra, kasu honetan) norberaren produktua ganean zeudela, eta euren irizpide (grafiko)ak ematen zizkietela inprentako langilei (hain ohikoa ez den jokaera hainbat inprimatzaile-tradizioan, ik. Rico 2005: 78). Zenbaitetan, ondoko idazleek (edo inprentek) kontuan hartu ez zituzten irizpideak dira (<x> edo <j> grafiak erabiltzea euskarazko **j*-hotsa adierazteko, adibidez), baina horrela idazteko aukera bada-goela erakusten dute: aipagarri egin zaigu Axularrek egindako kontzesio grafikoa (<j> erabiltzea sabaiaurreko igurzkaria adierazteko) bere obra argitaratu zuen inprenta beretik ateratako aukerari dagokiola, ez beste inprentakoari. Bestalde, horzkari palatala <tt>-z adieraztea Millangesen inprentaren berrikuntza dela dirudi, gure laginean De la Court-ek ez baitu palatal hori adierazten.

Hastapenetan dago ikerketa, eta corpus zabal honekin lehenengo hurbilpena egin dugu: ziur gaude apurka-apurka, puzzlearen piezak lotzen joan ahala, euskal grafiaren mapa eta editoreen zein idazleen arteko loturak argiago ikusiko direla. Hala eta guztiz ere, garai hartako giro editoriala osotasunean ezagutu gabe euskal grafiaren historia egitea ezinezko dela erakutsi dugulakoan gaude, eta egindakoa aberasgarri gertatu zaigu egitekoan ager dakizkigukeen arazoak aurreikusteko.

¹² Eta <ch>-ren erabilera, apika, **j*- adierazteko beste aukera grafiko baten beharra izan zuen: <x> 1. edizioan eta <j, g> (eta <x>) 2. edizioan (cf. Krajewska *et al.* 2017: 137).

5. Azken hitza

Aurreko orrialdetan gure ikerketaren aurkezpena eta hastapena ekarri nahi izan dugu: euskal grafiaren azterketaren azalpena bera egiteaz gainera (§ 2), beharrezana justifikatu (§ 1) eta erakutsi dugu De la Court eta Millangesen, Bordelen euskaraz argitaratzen zuten xvii. mendeko inprimatzaile nagusien lanak konparaturik (§ 4). Orain arte egindakoaren emaitzarik interesgarriena Euskara Zaharrean Iparraldean inprimaturiko lanen zerrenda da (§ 3): batetik, inprenta bakoitzaren lanak argi ikusteko eta bilatzeko lanabesa izateko paratu dugu, eta, bestalde, garai hartan idatziriko obren berrargitalpenen kopuruaz (eta garrantziaz) jabetzeko erreminta legez ere erabilgarria dela uste dugu. Horrexegatik, norbaitek euskal testu hauetako baten azterketa (grafikoa) egingo badu, baliagarri izan dakioko zerrenda hau, grafiaren alderdia planteatu dugun ikuspegitik egiteari egoki baderitzo, behintzat.

Ikerketa-molde honek, grafiaren historia bera argitzeaz gainera, zeharkako beste ondorio bat ere izan dezake, edizioen arteko erlazioak zehazteko oinarri eman diezagukeelako: grafia berez edizioaren atal txiki bat bada ere (edizioen erlazioak behar bezala frogatzeko, ezaugarri fisikoei, tipografikoei eta hizkuntz aldaerei ere begiratu beharko genieke), lehenengo pausoak egiteko bidea emango liguke: edizio kontrafaktuak non kokatzen diren testuaren transmisioan, edizio piraten balizko inprenta... Horregatik guztiagatik, atondu dugun zerrenda erabilgarria izan daiteke garai honetako testu inprimatuak aztertu nahi dituen edonorentzat.

Nola ez, azterketa grafiko horiek eta inprenten ohitura grafikoak zehaztea ez dago kigü bakarrik filologooi, ohitura-aldaketa horietan fonetika-fonologiak zeresan handia baitu: euskarak izandako bilakabide fonetikoak ere islatzen dira ohitura grafikoen aldaketetan. Beraz, uste dugu horretatik erator daitekeena omentzen ari garen Hualde moduko ikerlari batek aintzat hartuko duela, eta hobetzeko mila ideia izango dituela, euskararen historiari buruzko beste gai askotan egin duen bezala.

Azkenik, Urgellek *Geroren* edizioaren sarreran (2015a) Axularren grafiari buruz (edo, behintzat, *Gero* obraren grafiari buruz) esandakoa hona ekarri nahiko genuke:

... beharbada ez dugu sekula jakiterik izango ehuneko ehunean Axularrek euskaraz nola idatzi zuen, zein grafiarekin, baina egiantz handiz pentsa dezakegu zenbait puntu behintzat Millanges-en langileen eskuetan utzi zituela, eskarmentu handiko eta maila jasoko etxea izanik. Aukera honen aurka dator, jakina, hizkuntzaren berezitasuna, ez baitakigu euren artean euskaraz zekienik ba ote zen: ezinezkoa bederen ez da, orduan ere euskaldun antz baitzebiltzan Bordelen lanean. Esan gabe doa inprenta beretik irrendako euskal lanen erkaketak bakarrik eman liezagukeela, ezerk ematekotan, honi buruzko daturik. (Urgell 2015a: xi)

Axularren editoreak azaleratzen duen arazoari aurre egitea da proiektu honen helburua: Millanges-en inprentaren (eta gainontzekoen) ohiturak argitzerik badugu, euren prentsetatik ateratako hainbat testu konparaturik, agian bana genezake zer dago-kion inprentari eta zer idazlearen ekarpenari —cf. Materraren azterketaren (§ 4.2) atzenengo paragrafoak—. Badakigu, oro har, hau *desideratum* bat baino ez dela oraingoz, proposatzen dugun erkaketa eta ikerketa sistematikoarekin bakarrik jakin baikenezake proiektuak ilungune hau argituko duen edo ez, baina euskararen inprentaratzaren hasieran bezala, *Debile principium melior fortuna sequatur*.

Bibliografia

- Agirre, Pello. 1996. *Athanase Belapeire: «Catechima laburra» (1696): autorearen garaia, nortasuna eta idazlanak, grafiak eta fonologia, edizio kritikoa eta hiztegia*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Agirre, Pello. 1998. *Pronus singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Euangelium populo legendus*. *ASJU* 32(1). 1-46.
- Agirre, Pello. 2001. Belapeireren grafiak. *ASJU* 35(1). 299-361.
- Alberdi, Andrés. 1990. *Paskual Iturriaga, Agustín*. Vitoria-Gasteiz: Hizkuntza Politikarako Sailordetza. <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/agus.pdf> (2022-11-16).
- Altuna, Patxi & Jose Antonio Mujika. 2003. Hitzaurrea. In Patxi Altuna & José Antonio Mujika (arg.), *Arnaut Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak (Iker 15)*, 15-46. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Altzibar, Xabier. 1992. *Bizkaierazko idazle klasikoak: mogeldarrak, astarloatarrak, frai Bartolome*. Bilbo: BFA.
- Arcocha-Scarcia, Aurélie. 2008. *Linguae Vasconum Primitiae*-ren peritestalitateaz eta euskararen gramatizazioaren primiziaz. *ASJU* 42(2). 1-68.
- Arcocha-Scarcia, Aurélie & Joseba A. Lakarra. 2019. Aspectos de la gramatización antigua de la lengua vasca. *Lengas* 86. <https://doi.org/10.4000/lengas.4115>.
- Atutxa, Isaak. 1999. Joannes Etcheberri Ziburukoa: *Noelac* eta testu kritika. *Lapurdum, Numéro Spécial* 1. 233-312. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1626>
- Auroux, Silvain. 1994. *La révolution technologique de la grammatisation*. Liège: Mardaga.
- Baddeley, Susan. 1993. *L'orthographe française au temps de la Réforme*. Genève: Droz.
- Baddeley, Susan. 2012. French orthography in the 16th century. In Susan Baddeley & Anja Voeste (arg.), *Orthographies in Early Modern Europe*, 97-125. Berlin & Boston: de Gruyter Mouton.
- Baddeley, Susan & Anja Voeste (arg.). 2012. *Orthographies in Early Modern Europe*. Berlin & Boston: de Gruyter Mouton. https://doi.org/10.26530/oapen_626372.
- Batcave, Louis. 1908. Documents sur les imprimeurs-libraires de Bayonne. *RLPbC* 41. 13-23.
- Blecua, Alberto. 1983. *Manual de crítica textual*. Madril: Castalia.
- Cano Aguilar, Rafael. 2000. *Introducción al análisis filológico*. Madril: Editorial Castalia.
- Chartier, Roger. 2000. La pluma, el papel y la voz. Entre crítica textual e historia cultural. In Pablo Andrés & Sonia Garza (arg.), *Imprenta y crítica textual en el Siglo de Oro*, 243-257. Valladolid: Universidad de Valladolid & CECE.
- Claudin, Anatole. 1897. *Les origines et les débuts de l'Imprimerie à Bordeaux*. Paris: Librairie A. Claudin.
- Claudin, Anatole. 1900-1901. *Histoire de l'Imprimerie en France au XV^e et au XVI^e siècles*, 2 lib. Paris: Imprimerie Nationale.
- Clavería Laguarda, Carlos. 2019. *Los correctores. Tipos duros en imprentas antiguas*. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.
- de Páiz, M^a Isabel. 2017. La corrección editorial en la imprenta incunable castellana. In Manuel José Pedraza Gracia (zuz.), *Doce siglos de materialidad del libro. Estudios sobre manuscritos e impresos entre los siglos VIII y XIX*, 281-307. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.

- Dees, Anthonij. 1988. Propositions for the study of Old French and its dialects. In Jacek Fisiak (arg.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, 139-148. Berlin, New York & Amsterdam: Mouton de Gruyter.
- Dees, Anthonij. 1991. Ancien français écrit et ancien français parlé. In Dieter Kremer (arg.) *Actes du XVIIIe Congrès International de linguistique et de philologie Romanes*, 3. lib., 700-705. Tübingen: Max Niemeyer Verlag.
- Desgraves, Louis. 1972. Les livres imprimés à Bayonne au XVII^e siècle. *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* 128. 379-381.
- Desgraves, Louis. 1975. Les livres imprimés à Bayonne au XVIII^e siècle (1701-1789). *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* 131. 161-178.
- Desgraves, Louis. 1995. *Dictionnaire des imprimeurs, libraires et relieurs de Bordeaux et de la Gironde (XV^e-XVIII^e siècles)*. Baden-Baden & Bouxwiller: Valentin Koerner.
- Desgraves, Louis. 1998. *Le livre en Aquitaine, XV^e-XVIII^e siècles*. Biarritz: Atlantica, Centre régional des lettres d'Aquitaine.
- Fernández de Casadevante Romani, María Dolores. 2015. *La imprenta en Guipúzcoa (1585-1850)*. Madril: ADI.
- Garza, Sonia. 2000. La cuenta del original. In Pablo Andrés & Sonia Garza (arg.). *Imprenta y crítica textual en el Siglo de Oro*, 65-95. Valladolid: Universidad de Valladolid & CECE.
- Gaskell, Philip. 1999. *Nueva introducción a la bibliografía material*. Madril: Trea. (1. argit. ingelesez 1972).
- Godinot, René. 1965. Contribution à une histoire de l'imprimerie et de la librairie à Bayonne. *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* 107. 119-132.
- Hualde, Jose Ignazio. 2010. Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihernart* 25. 89-116.
- Iturriaga, Agustín Pascual. 1842. *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado*. Donostia: Ignazio Ramon Baroja.
- Iztueta, Juan Ignazio. 1824. *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia*. Donostia: Ignazio Ramon Baroja.
- Iztueta, Juan Ignazio. 1847. *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia*. Donostia: Ignazio Ramón Baroja.
- Krajewska, Dorota, Eneko Zuloaga, Ekaitz Santazilia, Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria & Urtzi Reguero. 2017. *Esteve Materraren Do(c)trina Christiana (1617 & 1623). Edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz: Euskaltzaindia & UPV/EHU.
- Labadie, Ernest. 1900. *Notices biographiques sur les imprimeurs et libraires bordelais des XVI^e, XVII^e et XVIII^e siècles*. Bordele: M. Mounastre-Picamilh.
- Labadie, Ernest. 1913. *L'imprimerie bordelaise et les livres basques*. Pau: G. Lescher-Moutoué.
- Lafon, René. 1951. La langue de Bernard Dechepare. *BAP* 7(3). 309-338 (Berrarg. in Jean Haritschelhar & Piarres Charritton, *Vasconiana*, 729-758. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999).
- Lucía Megías, José Manuel. 2009. El autor ante la imprenta: textos para un manual. *Edad de Oro* 28. 177-196.
- Mitxelena, Koldo. 1979. Miscelánea filológica vasca III. *FLV* 11. 220-225. (Berrarg. *OC* 11, 169-175).

- Mitxelena, Koldo. 2011. *Obras completas (ASJUren Gehigarriak 54-68)*, 15 lib. Donostia & Gasteiz: «Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegia, GFA & UPV/EHU (Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluzen argit.).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (10. argit. elektr. 2022: <http://www.euskaltzaindia.eus/och>).
- Mounole, Céline & Joseba A. Lakarra. 2018. Euskara Arkaikoa. In Joaquín Gorrochategui, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 345-468. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Mounole, Céline & Ricardo Gómez. 2018. Euskara Zaharra. Joaquín Gorrochategui, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 469-542. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Mujika, Jose Antonio. 2002. *Euskal ortografiaren hastapenak iparraldeko literaturan*. Bilbo: UPV/EHU.
- OC = Mitxelena (2011).
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Oihartzabal, Beñat. 2001. Statut et évolution des lettres basques durant les xvii^{ème} et xviii^{ème} siècles. *Lapurdum* 6. 65-137.
- Padilla-Moyano, Manu. 2011. *Kadet eta Bettiriño*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Pedraza, Manuel José, Yolanda Clemente & Fermín de los Reyes. 2003. *El libro antiguo*. Madril: Síntesis.
- Rico, Francisco. 2005. *El texto del «Quijote». Preliminares a una ecdótica del Siglo de Oro*. Valladolid: Universidad de Valladolid & CECE.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2007. Axularren *Gero* liburuen ale kasi birjinalako «M» pleguaz. *FLV* 105. 303-324.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2011. Axularren *Gero* libururaren lehen edizioa: Aleak, aldeak eta zuzenketak. In Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell (arg.). *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, 201-216. Bilbo: UPV/EHU.
- Ulibarri, Koldo. 2010. *Viva Jesus* dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU* 44(2). 41-154.
- Ulibarri, Koldo & Blanca Urgell. 2019. Euskararen gramatizazioaren hasikinak xvi. mendean: Pedro Madariaga eta euskal hotsak. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.). *Bihotz ahots*. Miren L. Oñederra irakaslearen omenez, 493-512. Leioa: UPV/EHU.
- Ulibarri, Koldo. Prestatzen. Euskal Herriko euskal *scripta* grafikoak. UPV/EHUko eskuizkribu argitaragabea.
- Urgell, Blanca. 1987. *Eskuliburuaren grafi aldaketak (1802-1821)*. *ASJU* 21(2). 357-387.
- Urgell, Blanca. 2015a. *Gero (edizio kritikoa)*. Bilbo & Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- Urgell, Blanca. 2015b. Tartas eta Leizarraga berrikusiak, edo nola aldatzen duen historia ikertzailearen begiradak. In Beatriz Fernández eta Pello Salaburu (arg.). *Ibon Sarasola, gorazarre: homenatge, homenaje*, 647-663. Bilbo: UPV/EHU.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joaquín Gorrochategui, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Villa, Laura & Rik Vosters (arg.). 2015. *The Historical Sociolinguistics of Spelling*. Amsterdam: John Benjamins (*Written language and literacy* 18(2), zenbaki berezia).
- Vinson = Vinson (1891-1898).

- Vinson, Julien. 1891-1898. *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, 2 lib. Paris: Maisonneuve (Berrarg. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1986).
- Voeste, Anja. 2015. Proficiency and efficiency: Why German spelling changed in Early Modern times. In Villa, Laura & Rik Vosters (arg.) *The Historical Sociolinguistics of Spelling (Written language and literacy 18(2), zenbaki berezia)*, 248-259. Amsterdam: John Benjamins.
- Zabala, Juan Mateo. 1848. *Verbo Regular Bascongado*. Donostia: Ignazio Ramon Baroja.
- Zuloaga, Eneko & Dorota Krajewska. 2021. Authors and languages in a sociohistorical context: Basque religious literature in seventeenth-century France. *Journal of Historical Sociolinguistics* 7(1). 1-26.